

EMAITZAK

2026ko URTARRILA–IRAILA

www.cafmobility.com

2026ko azaroaren 10a

LEGE OHARRA

DOKUMENTU HAU INFORMAZIOA EMATEKO HELBURUAREKIN BAKARRIK PRESTATU DA

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitorpenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko azalpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduaren berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsiotarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldez aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharrik hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun esklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldez aurretik idatzizko baimena eman gabe.

AURKIBIDEA

1/ 2026eko 9Hko DATU AIPAGARRIENAK
2/ FINANTZA INFORMAZIOA
3/ AURREIKUSPENAK
4/ ERANSKINAK

TRUST
IN MOTION



1/ 2026eko 9Hko DATU AIPAGARRIENAK

www.cafmobility.com

1.1 MAGNITUDE NAGUSIAK

JARDUERA OPERATIBOAREN BILAKAERA POSITIBOA, EPE ERTAINERA SEKTOREKO AURREIKUSPEN ONURAGARRIEKIN BATERA

Kontratazioa

4.916 M€
+% 21
vs 2025eko 9H

Salmentak

3.649 M€
+% 15
vs 2025eko 9H

Book-to-bill

1,3x

Eskari zorroa

17.502 M€
+% 8
vs 2025eko 9H

EBIT

208 M€
+% 29
vs 2025eko 9H

EBIT mj

% 5,7
ehuneko +0,6 puntu
vs 2025eko 9H


Emaitza garbi egozgarria

131 M€
+% 30
vs 2025eko 9H

Jasangarritasuna



+3 p.p.
vs 2025



+4 p.p.
vs 2025

/ **Eskaera-sarrera handia,** aldian gauzatutako salmentak nabarmen gaindituz (Btb=1,3x)

/ **Eskaera-zorroa maila altuetan, etorkizuneko jardueraren ikusgarritasun** sendoa eskainiz

/ Salmenten, EBIT-aren eta Emaitza Garbi egozgarriaren bilakaera positiboa, **jardueraren hazkundeak** eta **errentagarritasunaren pixkanakako hobekuntzak** bultzatuta

CAFek 2026rako ikuspegia mantentzen du eta 2030erako Plan Estrategiko berria abenduaren 22an aurkeztuko du

1.2 MUGARRI GARRANTZITSUAK

SEKTOREKO JOERA INDARTSUEK TRENBIDE-MERKATUAREN HAZKUNDE IRAUNKORRA BABESTEN DUTE

/ UNIFE-k 2026ko irailean "World Rail Market Study (WRMS)“ aurkeztu du, tren sektorearentzako aurreikuspen onuragarriekin

TREN-MERKATU IRISGARRIA % 3,5ko[1] CAGR-RA HAZIKO DA 2031 ARTE, SEKTOREAREN HANDITZE-TASA HISTORIKOAK GAINDITUZ

/ Merkatu irisgarriak **urtean 152.000 milio euroko bolumena** izango du **2029–2031 epean**, 2023–2025eko 124.000 milio eurokin alderatuta.

/ **Europa** izango da trenbide merkatu irisgarriaren nukleo, mundu mailako inbertsioaren erdia baino gehiago osatuz.

/ **Trenak** merkatu irisgarriaren segmentu nagusia izaten jarraituko du, eta sektorearen hazkunde-motor nagusietako bat izango da, flotak berritzeko eta zabaltzeko beharrak bultzatuta.

WORLD **RAIL** MARKET STUDY by unife

[1] Hazkunde honek inflazioaren eragina kanpo uzten du.



DESKARBONIZAZIOA, URBANIZAZIOA ETA DIGITALIZAZIOA TRENBIDE SEKTOREAREN EPE LUZEKO HAZKUNDEAREN OINARRI NAGUSIAK IZATEN JARRAITZEN DUTE

/ Faktore hauek, trenbidearen liberalizazioarekin, araudiaren bilakaerarekin eta garraio proiektu estrategikoekin batera, garraio-eskaera bultzatuko dute eta trenbide-garraioaren lehiakortasuna indartuko dute.

/ **Europako Mendebaldeko herrialdeak** izango dira datozen urteetan tren-material mugikorrean eta tren-zerbitzuetan aurreikusitako inbertsio eskuragarriaren eragile nagusiak.

WORLD **RAIL** MARKET STUDY by unife

1.2 MUGARRI GARRANTZITSUAK

CIVITY BEMU BERRIAREN MUNDU MAILAKO AURKEZPENA INNOTRANS 2026 AZOKAN

/ CAFek eskualde-lineetarako zero emisioetako trenbide-soluzioetan duen posizionamendua indartzen du Civity BEMUren merkaturatzearekin



SOLUZIOAREN BALIOZTAPEN TEKNOLOGIKOA

/ CAF Alemanian VRR eta NWL-rentzat bateriaz elikatutako tren-proiektua garatzen ari da; kontratuak 76 BEMU unitate eta 30 urteko mantentze-lana hartzen ditu barne.

/ Lehen unitateak **273 km-ko autonomia** lortu du probetan **bateria-moduan,** plataformaren trakzio- eta energia-kudeaketa gaitasunak egiaztatuz.

/ Lortutako datuek **BEMU tren belaunaldi berrien garapenean** eta trenbide proiektu berrien optimizazioan **lagunduko dute**.

ESKUALDEKO GARRAIOAREN DESKARBONIZAZIORAKO SOLUZIO BAT

/ BEMU teknologiak diesel trenak eskualdeko lineetan pixkanaka baztertzea ahalbidetzen du, azpiegitura guztiz elektrifikatu beharrik gabe.

/ **Bateriaz elikatutako trenak trenbide-sare nagusiaren** deskarbonizazioa bizkortzeko **alternatiba nagusietako bat bihurtzen ari dira.**

/ **CIVITY BEMU berriak CAFen posizioa indartzen du** Europako tren-merkatuaren barruan hazkunde-potentzial handiena duen segmentu batean.

1.2 MUGARRI GARRANTZITSUAK

SOLARIS-EK AEB-ETAN EGIN DU DEBUTA, IPAR AMERIKAKO MERKATURAKO BEREZIKI GARATUTAKO AUTOBUSAREN MUNDU MAILAKO ESTREINALDIAREKIN

/ 2026ko urrian Chicagon ospatutako APTA TRANSform & EXPO azokak Solaris Urbino 40 electric modeloaren mundu mailako aurkezpena hartu du

Solaris Urbino 40 elektrikoa | MUNDU-PREMIERA

/ 40 eta 60 oineko zero-emisioko autobusak, Ipar Amerikako merkaturako bereziki garatuak.

/ Solaris-ek AEBetako merkatuan egingo ditu bateriazko autobus elektrikoen lehen entregak datozen asteetan, Seattleko King County Metro eta San Frantziskoko Udal Garraio Agentzia (SFMTA) bezeroentzat.

/ Enpresak, era berean, trolebusak hornitzen dizkio Kanadako Vancouverreko TransLinki.








1.3 KONTRATAZIOA

ESKAERA-SARRERA HANDIA, ALDIAN GAUZATUTAKO SALMENTAK NABARMEN GAINDITUZ (BTB = 1,3x)

GUZTIRA (M€)




Trenak	**2.442**	**4.133**
Autobusak	**1.607**	**783**

- ***Pipeline*-a** ez da nabarmen aldatu azken hilabeteotan eta maila altuetan mantentzen da.


KONTRATAZIOAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)

2026ko 9H



KONTRATAZIOAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)

2026ko 9H



/ 2026ko HH3an lortutako kontratu berriek **metatutako kopurua ia 5.000 milioi eurora** eraman dute.

/ 2026ko 9Han Talde osorako **Btb=1,3**.

Btb=1,7 trenen segmentuan

Btb=0,7 autobusen segmentuan

/ 2026ko 3HHko tren kontratazioak honako hauek barne hartzen ditu, besteak beste:

- JSC "Srbijavoz" operadoreari (Serbia) aldiriko trenak hornitzea eta haien mantentzea bi urtez.
- Île-de-France Mobilités-entzat (Frantzia) tren-tram unitateak hornitzea.

/ Solarisen kontratazioa hazkunde selektibo eta ordenatuaren estrategiarekin bat dator. Aldi honetan 952 autobus kontratatu dira, eta unitateen % 83a zero-emisio soluzioak izan dira nagusiki.

/ Kontratazioak **Europako merkatuetan oinarritzen jarraitzen du nagusiki, kontratatutako bolumenaren % 91 osatuz**.

1.3 KONTRATAZIOA

KONTRATU SELEKTIBOEN ESLEIPENAK

2026ko 3HHan iragarri eta sinatutako kontratazio nagusiak



JSC "SRBIJAVOZ"RENTZAKO **ALDIRIKO TRENAK** (SERBIA)

- JSC "Srbijavoz" enpresarekin, Serbiako estatuaren jabetzakoa den trenbide enpresarekin, sinatutako akordioa.
- Kontratuaren esparruak honako hauek barne hartzen ditu:
  - **Civity plataforman** oinarritutako 30 aldiriko tren-unitate hornitzea, Belgradoko BG Voz aldiriko-sarean zerbitzua emateko.
  - Trenen mantentze integralaren zerbitzua bi urtez.
- **CAFek Serbian lortutako bigarren kontratua da hau,** 2009an Belgradorako 30 tranbien hornidura-proiektua esleitu ondoren; unitate horiek gaur egun zerbitzu komertzialean daude.
- Operazioaren balioa **300 M€ baino gehiagokoa da**.



TREN-TRAM UNITATEAK
ÎLE-DE-FRANCE MOBILITÉS-ENTZAT (FRANTZIA)


- Île-de-France Mobilités-ekin sinatutako akordioak 15 tren-tram unitateren hornidura jasotzen du.
- **Kontratuak, gainera, etorkizunean gauzatu ahal izango diren aukerak jasotzen ditu,** flotako ordezko piezak hornitzeko, baita tren osagarriak ere.
- CAFen **URBOS tranbia-plataforman** oinarritutako unitateak dira, 7 modulu artikulatuz eta 5 bogierekin konfiguratuak.
- Unitateek Paris eskualdeko T13 linean emango dute zerbitzua. Linea hori Île-de-France-eko eskualdeko garraio-sarearen parte da, eta RATP Cap Île-de-France taldeko filialak kudeatzen du.
- Kontratuaren balioa **150 M€ baino gehiagokoa** da**.**

TRUST
IN MOTION

1.4 ESKARIEN ZORROA

ESKARI-ZORROA MAILA ALTUETAN, ETORKIZUNEKO JARDUERAREN IKUSGARRITASUN SENDOA ESKEINIZ

GUZTIRA (M€)



Zorroa /Salmentak ratioa[1]	**3.6x**	**3,9x**
Autobusak	**2,0x**	**1,7x**
Trenak	**4.2x**	**4,7x**

/ **Eskari-zorroa % 8 igo da** 2026ko urtarrilaren eta irailaren artean, trenbide-portafolioaren hazkunde sendoari esker.

/ **Solarisen eskaera-zorroa murriztu egin da** entrega-bolumen handien eta kontratu-adjudikazioen erritmo motelagoaren ondorioz.

/ Eskari-zorro honek **ez du barne hartzen** iragarritako hurrengo kontratua, **gutxi gorabehera 500 M€-ko balioa** duena:

- Kairoko Metrorako birgaitzea eta mantentzea (Egipto)

/ **Era berean, zorro horretan ez dago jasota** zorroko kontratuei lotuta dauden eta **bezeroek gauza ditzaketen etorkizuneko aukeren bolumen handia (>10.000 M€).**

[1] 2026/09/30eko ratioa, 2025ean izandako salmenten arabera kalkulatuta.

2/ FINANTZA INFORMAZIOA

Hiruhileko eta urteko informazio historiko osoa eskuragarri CAFen webgune korporatiboan, helbide honetan:

https://www.cafmobility.com/eu/akziodunak-inbertsoreak/informazio-ekonomiko-finantzarioa/funtsezko-zifrak/

2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

SALMENTEN, EBIT-AREN ETA EMAITZA GARBI EGOZGARRIAREN BILAKERA POSITIBOA, JARDUERAREN HAZKUNDEAK ETA ERRENTAGARRITASUNAREN HOBEKUNTZAK BULTZATUTA

/ Errentagarritasun operatiboaren goranzko bilakaera

(milioi eurotan)	2025ko 9H[1]	2026ko 9H[1]	Ald. 2026ko 9H/2025eko 9H[1]
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	**3.165**	**3,649**	**+15%**
USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT	**161**	**208**	**+29%**
EBIT Marjinaren %	**5,1%**	**5,7%**	
Finantza arloko emaitza	(26)	(32)	
Finantza-sarrerak	15	14	
Finantza-gastuak	(37)	(41)	
Trukeko edo kanbioko aldeak	(3)	(4)	
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	(1)	0	
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	9	10	
ZERGEN AURREKO EMAITZA	**145**	**187**	**+29%**
Irabazien gaineko zerga	(40)	(53)	
Zergen ondorengo emaitza garbia	104	134	+28%
Interes minoritarioak	4,1	3,5	-14%
ERAKUNDE KONTROLATZAILEARI EGOTZITAKO EMAITZA	**100**	**131**	**+30%**

/ 2026ko 9Han kontsolidatutako **salmentek % 15eko igoera** izan dute, epe horretan **Solarisek izan duen hazkunde sendoari esker**.

/ **EBIT marjin bateratua** urte arteko **% 0,6ko puntu igo da**, % 5,7ra; honek, negozio-jardueraren hazkundearekin batera, **Ustiapen Emaitzaren % 29ko gorakada** eragin du, salmenten hazkunde-tasaren bikoiztuz.

/ **Erakunde Kontrolatzaileari Egotzitako Emaitza 131 M€-ra iritsi da**, aurreko urteko aldi berean baino % 30 gehiago.

[1] Milioi eurotara biribildutako zifra absolutuak. Urte arteko aldakuntza, zifra absolutuak zehatz-mehatz kontuan hartuta, biribildu gabe.


2.1 EMAITZA KONTU BATERATUA

TALDEAREN SALMENTEK HAZKUNDE HANDIA IZAN DUTE, ETA URTE AMAIERARAKO HAZKUNDE-TASA APALAGOETARA IGAROTZEA AURREIKUSTEN DA

Hazkundea aldi honetan Solarisen jarduerak erakutsitako dinamismo handiari esker gauzatu da


SALMENTAK

BATERATUA



- Bi negozioek salmenten hazkundeari ekarpen positiboa egin diote, nahiz eta **Solarisen ekarpena bereziki aipagarria den.**


TREN ARLOA



Salmentekiko %	Salmentekiko %
2025ko 9H	2026ko 9H
77%	**68%**

- Trenbide salmenten **hazkundea** tren-ibilgailuen fabrikazioan eta trenbide zerbitzuen jarduera handiagoaren eraginez bultzatu da.

AUTOBUSAK



Salmentekiko %	Salmentekiko %
2025ko 9H	2026ko 9H
23%	**32%**

- **Autobusen salmenten hazkundea maila altuetan mantentzen da** honako arrazoiengatik:
  - **Entregatutako unitate kopuruaren igoera esanguratsua** (+% 49 urtetik urtera).
  - 2025eko 9Harekin alderatuta, entregatutako autobusen **prezio mixa altuagoa izan da**.
- Urtearen azken zatian Solarisek duen oinarrizko konparazio-maila altuak **egungo hazkunde-tasak moteltzea** espero da**.**



3/ AURREIKUSPENAK

3. AURREIKUSPENAK

CAF-EK 2026RAKO DUEN IKUSPEGIA MANTENTZEN DU ETA 2027–2030EKO HURRENGO ZIKLO ESTRATEGIKORAKO PRESTATZEN ARI DA

/ 2030erako Plan Estrategiko berria abenduaren 22an aurkeztuko da merkatuan

2026[1]

Book-to-bill

≥1
Kontratazio selektiboa

Salmentak

Digitu altu bateko hazkundea vs 2025

EBIT eta Emaitza garbia

Errentagarritasunaren hobekuntza vs 2025

Dibidendua

Emaitzen bilakaerarekin bat dator

FZG/EBITDA ratioa

Egonkortasuna 2025. urtearekiko

Jasangarritasuna

Jarduera handiagoko testuinguruan isurpenen murrizketa

[1] Aurreikuspen hauek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoen egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.



4/ ERANSKINAK

4.1 KONTRATAZIOAREN XEHETASUNA

2026ko urtarrila - iraila aldian iragarri eta eskari - zorroan sartu diren kontratuak

DATA	**PROIEKTUA**	**HERRIALDEA**	**NEGOZIOA / JARDUERA**	**DESKRIBAPENA**	**MOTA**	**BEZEROA**	**AUKERA OSAGARRIAK**	**ZENBATEKOA** (etorkizuneko aukerak kanpoan utzi dira)
2026ko 1HH	SNCB	Belgika	Tren arloa / Tren-ibilgailuak	Tren arloko 180 kotxeren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria	Bai	> 1.700 M€
2026ko 1HH	CBTC Helsinki	Finlandia	Tren arloa / Soluzio Integralak eta Sistemak	CBTC ezartzea, kontrol-zentroa hornitzea eta egungo flotako ibilgailu barruetako seinaleztapen-sistemak ordezkatzea	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	60 M€ inguru
2026ko 1HH	Nobina	Suedia	Autobusak	103 autobus elektrikoren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	> 125 M€
2026ko 1HH	VR Sverige	Suedia	Autobusak	101 autobus elektrikoren hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Ez	
2026ko 2HH	Napoliko proiektu integrala	Italia	Tren arloa / Tren-ibilgailuak + Soluzio integralak eta sistemak + Zerbitzuak	Proiektu integrala. Besteak beste, CBTC/ATO seinaleztapen-sistemaren eta tren flotaren eta mantentze-lanen hornikuntza barne hartzen du.	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	-
2026ko 2HH	EuroMaint	Suedia eta Norvegia	Tren arloa / Zerbitzuak	Hainbat kontratu mantentze-lanetako zerbitzuak emateko	Oinarri-kontratua	Berria ez / Berria	Ez	300 M€ inguru
2026ko 3HH	Aldiriko JSC "Srbijavoz"	Serbia	Tren arloa / Tren-ibilgailuak + Zerbitzuak	30 aldiriko tren hornitzea eta haien mantentze integrala bi urtez	Oinarri-kontratua	Berria	Ez	> 300M€
2026ko 3HH	Pariseko Eskualdeko Tren-Tram	Frantzia	Tren arloa / Tren-ibilgailuak	15 tren-tram unitateen hornikuntza	Oinarri-kontratua	Berria ez	Bai	> 150M€

4.2 AGENDA

Hitzaldiak eta roadshow-ak

- **2026ko abenduaren 3a**
  European Industrials Conference (Londres)
- **2027ko urtarrilaren 4tik 8ra**
  Kanada eta AEB-etako roadshow-a
- **2027ko urtarrilaren 8a**
  Oddo BHF Conference (Lyon)
- **2027ko urtarrilaren 13a**
  Spain Investor Day CEO Conference (Madril)
- **2027ko urtarrilaren 27-28a**
  Iberian Conference Santander (Madril)

Emaitzen argitalpena eta Plan Estrategikoa

- **2026ko abenduaren 22a**
  2030erako Plan Estrategikoaren aurkezpena
- **2027ko otsailaren 24a**
  FY2026ko ekitaldiko emaitzen argitalpena



4.3 ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures","APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2026ko Lehen Seihilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean (www.cnmv.es) eta sozietatearen webgunean (www.cafmobility.com) dago irakurgai, 6. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



www.cafmobility.com

TRUST
IN MOTION